

ATHLETICEKO ENTRENATZAILE FRANTZIARRA EZ DATOR BAT GEZURTIA DELA DIOTENEKIN

Luis Fernandez: «Naizen modukoa naiz»

Justifikaezina justifikatu guran aritu zen atzo Luis Fernandez Lezaman. «Asko» sentitzen du gertatutakoa eta ulertu egiten du zenbaitzuk gaizki hartu izana. Esaldi jakin batean laburtu zuen kontua: «Naizen modukoa naiz».

Ramon Basaldua / Bilbo

GIRO beroa izan zen atzo Lezaman. Hasteko, Luis Fernandezek ez zien entrenamenduko irudirik hartzen utzi telebistako kamarek. Horretaz gain, Ibaiganetik prentsaurrekoa eskainiko zuela adierazi bazuten ere, ez zuela berbarik egingo esan zigun Fernandezek kazetariok zelairako bidean zihoala. Entrenamendua amaitu ostean, berriz, prentsa aretora sartu zen, kazetari ugari zain zituela.

Gai bakarra izan zen hizpide frantziarraren agerraldian. Izan ere, hedabideetako ordezkariak azalpenak eskatu zizkioten Atletico de Madriden aurkako partiduen aurrean gezurrezko hamaikakoa eman izanagatik. Luis Fernandezek ahaztu egin nahi zuen kontu hori. «Lau egun daramatzagu gai horrekin. Egia da, bai, gezurrezko hamaikakoa eman nuela. Hala ere, zutariko askok ondo baino hobeto zenekiten hura ez zela hamaikako zuzena. Profesionalak zarete eta ahalik eta ondoen egin behar duzue zuon lana. Horretarako iturri onenak izan behar dituzue lan egiteko eta ulertzen dut. Dena den, guztia ezin da esan», adierazi zuen atzo Athleticceko entrenatzaileak, giroa gehiago nahastuz.

Ganora gabeko azalpen ugari eman zituen atzo Fernandezek baina ez zuen ezer argitu. Hamar minutu inguru eman zituen berbetan ezer argitu barik, gertatutakoa «asko sentitzen» duela esan zuen arte. «Zutariko askok gaizki hartu duzue eta ulertzen dut. Dena den, ez da inolako intenziarik izan nire aldetik. Ez zaituztet engainatu nahi. Gainera, eman nuen hamaikakotik bi aldaketa besterik ez nituen egin. Ez da hain gezur handia izan».

Hortik aurrera, erasora ere jardun zuen Fernandezek. «Ondo aprobetxatu duzue Manzanarenen galdu dugula». Haserre ere agertu zen frantziarra. «Gezurria naizela diote eta ez dator bat horrekin. Ahalik eta informazio gehien ematen saiatzen naiz inor engainatu barik. Behin bakarrik engainatu dizuet hamaikako batekin». Hogei minutu inguru behar izan zituen Luis Fernandezek gertatutakoa ulertzeko giltza emateko. «Naizen modukoa naiz eta bakoitza desberdina da. Urte birako nago hemen eta gehiago edo gutxiago egin nitezake. Naizen modukoa naiz eta guzak ahalik eta ondoen egiten saiatzen naiz». Esaldi horiekin laburtu zuen esan beharreko guztia.



Luis Fernandez Lezaman entrenamendu batean.

XOUSE SIMAL

Luis Fernandez: «Egia da, bai, gezurreko hamaikakoa eman nuela. Hala ere, zutariko askok ondo baino hobeto zenekiten hura ez zela hamaikako zuzena»

«Sekula ez nauzue defenditu. Larunbatean nire aurkako adierazpenak egin zituzten eta nire alde azaldu den bakarra Guzman presidentea izan da»

Negar apur bat ere egin zuen Athleticceko entrenatzaileak. Berorren arabera, Bizkaiko hedabideek ez ei dute defenditzen erasotua denean. «Sekula ez nauzue defenditu. Baliteke nik gaizki irakurtzea baina ez dut uste nire alde egiten duzuenik. Larunbatean nire aurkako adierazpenak egin zituzten eta nire alde azaldu

den bakarra Guzman presidentea izan da eta biziki eskertzen diot». Datorren igandean Athleticceko Extremaduran jokatuko duen partiduari buruz galdetu zioten entrenatzaileari baina ez zuen ezer esan nahi izan.

Atletico de Madriden kontrako partidua inpugnatua • Athle-

ticek lehengo igandean Atletico de Madriden kontra jokatu zuen partidua inpugnatzea erabaki zuen atzo arratsaldean, Madrilgo taldeak ez zuelako legez zelairatu filialeko Djordje Tomic jokalaria serbiarra. Araudiak dio talde filialeko jokalaria ez komunitarioek ezin dutela lehen taldean jokatu.

Bestalde, Genar Andrinua titular izan zen igandean Manzanarenen hilabete askoz ordezkoren aulkian eserita edo deialditik at egon ondoren. Athleticceko kapitain ohiaren kontratua ekainean amaituko da eta oraindik ez du berbarik egin direktibarekin bere etorkizunari buruz. Haren ustez, titular jokatu izanak ez du eraginik izan behar klubekoekin izango duen negoziaketan.

Azkenik, Athletic-Real Madrid Canal + kateak zuzenean eskainiko du hilaren 25ean.

Irtenbiderik errazena

• RAMON BASALDUA •

Luis Fernandez frantziarrak nahi duena egin du Athleticera iritsi zenetik. Aste batzuetan lau edo bost prentsaurreko eskaini ditu eta beste batzuetan, aldiz, ez du berbarik egin kaltegarria zela uste zuelako. Horregaz batera, ondo baino hobeto dakigu Athleticceko entrenatzailea berezia dela, bera bezalako pertsona batek ez baititu egiten denboraldian zehar egin dituen gauzak. Oraingo honetan, oster, muga gainditu du eta ganora barik gainera.

Inork ez du ulertzen zer dela eta eman zuen hamaikako bat ostiralean berak jakinda ez zuela ekipa hori zelairatuko Vicente Calderonen.

Athleticceko entrenatzaileak ez zuen ezer irabazteko. Hedabideetako ordezkarien haserre eragin du ordea. Frantziarra ez da leloa eta konturatu da, bai, barruraino sartu duela hanka. Hala ere, ez zuen onartu nahi izan. Kazetariak hortzak erakutsi zizkioten Fernandezi eta hark bere burua

larri ikusita irtenbide errazena bilatu zuen: «Naizen modukoa naiz» esatea. Gertatutakoa gertatuta, dinamika arriskutsu batean sartu gaitu Luis Fernandezek. Hau da, zer edo zer esaten duenean ez dugu jakingo egia esaten ari den ala ez. Egia esateko, ez dut ulertzen zer dela eta egin duen egiten duena Liga txapelketa amaitzeko bost partidua geratzen direla eta Athletic UEFArako txartela lortzeko borrokan ari denean. X

Realak beste urtebeterako luzatu dio kontratua De Paulari

■ Klubak 1998ko ekainean beste bi urterako luzatzeko modua izango du

E. Esnaola / Donostia

OSCAR DE PAULAK beste urtebetez behintzat jarraituko du Realean, klubak jokalaritari kontratua beste denboraldi baterako luzatzea erabaki duela. Bi parteek denboraldia amaitu arteko kontratua sinatu zuten duela bi urte, betiere klubak ekainaren 30a baino lehenago kontratua aztertzekotan. Realak 2000ra arte luzatzeko posibilitatea zuen, baina urtebeterako bakarrik luzatu dio. 1998ko ekainaren 30a baino lehenago berriz ere De Paularen kasua aztertuko dute klub txuri-urdineko agintariak eta, nahi izanez gero, kontratua beste bi urterako luzatzeko modua izango dute.

De Paulak bigarren denboraldia du hau Realean, eta iaz oso itxura ona eman zuen: 15 aldiz titular izan zen eta beste 10 partidutan ere hartu zuen parte, ordezkoko gisa. Liga bukaera lesionatuta pasatu zuen. Sei gol sartu zituen. Denboraldi honetan ez dabil hain ondo: 18 aldiz titular aritu da eta bederatzi aldiz ordezkoko. Bi gol sartu ditu.

Bestalde, igande honetako Real-Atletico de Madrid partiduan ipiniko dio Luis Uranga presidenteari Urrezko Harribitxia Jokin Uria jokalaritari. Uriak ekainaren 30ean utziko du Real, bertako lehen taldean 11 denboraldi egon eta gero.

Odon Elorzak Urangari

erantzun dio • Odon Elorza Donostiako alkateak atzo prentsaurrekoan adierazi zuenez, Anoeta estadioan egin behar diren pintaketa gastuak Udalen eta Realaren artean ordaindu behar dituzte: «Estadioan ez da deus murturatu eta, beraz, hitzarmenean ageri den moduan, ateen, hesien eta abarren pintaketa gastuak Udalen eta Realaren artean ordaindu beharko dira. Hamabost milioi pezetako gastua erdi bana egin beharko da. Realak atara duen eztabaida hau erabat da absurdua, Udala prest dagoen belar artifizialeko bost zelai egiteko 315 milioi pezetako gastatzeko».

Elorzak, gisa berean, garbi utzi zuen Anoeta estadioko atletismo pistak ez direla kenduko: «Nik ez dakit zergatik lotsatzen den Luis Uranga estadio honetaz. Ni, behintzat, ez naiz lotsatzen. Estadioak atletismo pistak ditu eta gol mailako probak hartzeko prest dago. Realak pistak kentzeko bidea prestatzen ari bada, uste dut bide okerretik doala». X